

Elgoibar - 1287. zenb.
XXX. urtea - 2023-05-26



TOKIKOM

BARREN

Herritarrek dute hitza



OSASUN GIDAN PUBLIZATEA JARRI NAHI DUZU?

Gidan agertzearen onurak!

22€
hilean

22€ren truke, hileroko, zure osasun zentroaren irudia erakutsiko dugu BARREN astekarlan.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiko ikusiena.

4.885
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

📞 943 744 112

📞 688 769 657



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

LED LG 55UQ79006LA.AEU TELEBISTA



- SmartTV webOS 22
- 4K UHD
- HDR 10
- Alexa eta Google laguntzaileak
- Magic Remote agintea
- 4k A5Gen5 Adimen artifizialarekin

G

469 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Aurrera, batera!
Gipuzkoa



IÑAKI ARREGUI URIA

Mendareko alkatezarako hautagoia

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gipuzkako diputatu nagusirako hautagoia

MAIALEN GURRUTXAGA URANGA

Elgoibarko alkatezarako hautagoia

02-07-2025
1 0 0

Argitaratzailea:



Ane Astiazaran

Itzultzailea

Dena aldatzen da



***"Nori komeni zaio
gaztetxea edo feminismoa
hitz hutsal bihurtzea?"***

Babeslea: Laguntzaileak:



Dena aldatzen da kantatzen du Ines Osinagak bere azken diskoan; Miren Amurizak itzulitakoak dira Mercedes Sosaren hitzok. Hiru artista horiek aldaketari eginiko apologia da poema, beharrezko apologia kasu askotan. Aukerekin eta galerekin lotzen dugu aldaketa, ate itxiekin eta leiho irekiekin, eta bizitza ere dikotomia horretan oinarritzen da sarri. Aldaketak ez du beraz, bere horretan ez zentzu negatibo, ez positiborik. Horregatik da garrantzitsua zein aldaketa onartu, bultzatu edota baztertu nahi ditugun zehaztea.

Jendea aldatu egiten da (nahiz eta gehienok onartu ez), garaiak aldatu egin dira (nahiz eta zenbait onartu ez), eta hitz batzuen esanahia ere aldatu egin da (nahiz eta gutxi batzuek onartu ez). "Gaztetxe" hitza, esaterako, gure herrian aldatu egin da; konnotazio politikoa galdu du. Badirudi beharrezkoa dela gaztetxearen izaera politikoari buruzko azalpen amaigabeak ematea, eta hala ere, ulergaitza da zenbaitentzat espazio politizatuari izaera hori esleitzea. "Feminismoa" ere aldatu egin da, ezkerretik eskuinera zabaldu da terminoa, eta berdintasun kontzeptua baldintzazko esaldien bitartez soilik azal daiteke; konnotazio politikoa galdu du.

Aldaketa batzuk ez ditugu onartu nahi. Nori komeni zaio gaztetxea edo feminismoa hitz hutsal bihurtzea? Nork borrokatuko du konnotazioa mantentzeko? Ez da norgehiagoka dialektikoa, normalean herri mugimenduz eta politikez lagunduta dator bata babestu eta bestea gaitzestea, edo ez-ikusiarrena egitea. Aldaketa horiek ez ditugu onartuko. Beste aldaketa batzuen apologia egiteari, ordea, ez diogu berehalakoan lagako. Domekatik aurrera batez ere.

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Burbuilak

Zenbat aldiz ikusi ditugun eta egin ere bai! Xaboi pixkat eta ura nahikoa dira ponpatxoak aireko jolasera bidaltzeko. Liluragarria haietako bakoitza nola goratzen den ikustea, gero plast! desegin arte. Gure bizitza labor honen metafora dira; iraganaren eta etorkizunaren artean bizi dugun distira iheskorra.

Gizartea ere hala ikusten dut gero eta gehiago, burbuletan isolatua. Xaboi ponpa txikien, gero eta txikiagoen, antzera airean norabiderik gabe isolamendu biderkatuan. Mugikorrak iritsi ziren eta haien menpe bizi gara, neurri handi batean. Teknologiaren aurrerapenak ez dira benetako aurrerapen haien erabilera egokia ez bada. Bakoitza bere pantailan sartuta, azkenerako harreman birtualek hartzen dute nagusitasuna hurbilekoen kaltetan. Elkarren ondoan eta elkarrengandik zein urrun! Autismotik hurbil.

Duela gutxi irakurri nuen gaurko gizartearen gaitz handienetako bat horixe dela: burbuletan bizi gara, burbuila oso txikietan, hobeto esateko. Kapitala jarri da gizakiaren gainetik eta diruak ez daukanez ez bihotzik ez arimarik, gero eta pobreago gara, gero eta antzuego. Horixe da kapitalari komeni zaiona: gu banatuta ateratzen da irabazten. Neu eta neureak lehenesten ditugunean, gizarte harreman jatorrak, dudarik gabe, ekar lezakeen aberastasunari egiten diogu muzin. Gero eta "egoistagoa", norberekiogoa da gure gizartea.

Izan ere, egun batean alboko burbuila horrekin elkartu eta hitz egiten hastea nahikoa izaten da

aurreiritzi estereotipatuak plast! desegiteko. Egin aproba. Irribarre zabal batek, egunon abegikor batek, itxitako ateak hala zabaltzen ditu, sensoreak ate automatikoak nola, berez-berez. Burbuila txikia handiago bihur daiteke, agian. Biak atera dira irabazten. Gizarte harreman berriek aberatsago bihurtzen gaituzte...

Ez da erraza, ez, betiko zure lagun edo taldekoekin aparte ere ibili eta bizitza konpartitzea, iritziak trukitzea, baina horixe da zure ponpatxoak behar duen aukera. Ondo pentsatuz gero, tristea da bi iluntasunen artean txinparta bat baino ez den gure bizitzari distira handitzeko biderik ez ematea... eta, azkenean, beldurra da errudun.

Bai. Bakoitza bere gotorleku pobre horietan bizi gara, besteengana hurbilduz eta konpartituz zerbait galduko ote dugun beldurrez. Eroso gaude bakoitza geure burbuilatxoan, besteean ekar dezakeen kontrastea gure zein gizartearen mesederako izan daitekeela ohartu gabe.

Bizitzako gertaerek sortzen dituzten tentsioak ez dira betiko izaten, ez lukete izan behar. Harremanerako ateak beti behar luke irekita gu eta gure ondorengoak gizarte sano eta aberatsagoan bizi daitezen. Gure esku dago, buru eta bihotzak argi eta zabal, geuk zein ondorengoek merezi dugun/duten harresirik gabeko etorkizun aberatsago bat eraikitzea. Ate automatikoaren aurrean bezala, bestearen aurrean jarri eta plast! zure ponpa desegin eta atea zabalik aurkituko duzu.

A. Ugarteburu



Mari Tere Iriondo Mendikute

2023ko maiatzaren 19an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 655 658



Mendaroko ospitalerako igogailuaren baranda herdoilduta dago.

"Mendarora trenez joan eta ospitalerako igogailua probatzea erabaki nuen orain egun batzuk, medikuarenean hitzordua neukalako. Ez dira bi hilabete igogailua zabaldu zutela eta harrituta gelditu nintzen goiko baranda guztia dagoeneko ugetuta dagoela ikustean. Barandan zehar plastikozko hodi moduko batzuk daude, eta ez dakit ugerra estaltzeko diren edo obratik kendu gabe dituzten. Hau ez da itxurazkoa".



Arbolen erabilera okerra.

"Mintxetako aparkaleku atzean dauden eserlekuek ez dute arbolarik ondoan, eta eguzki-egunetan ez dago han jarriko denik. Eserlekuak jartzen badira, halako gauzak zaindu behar direla iruditzen zait".



Norbere kaka norberak batu behar du:

"Mintxetako hesituran zaborrez betetako poltsatxoak ikusten ari naiz azkenaldian. Horiek hor uzten dituenak zer pentsatzen du, morroiren batek erretiratuko dituela? Ganoragabeko galanta hori egiten duena".



Txalo bat ospitaleetako eta anbulatorioetako garbitzaileei:

"Txalo bero bat eman nahi nieke ESI Debabarrenako garbitzaileei, 70 egun baino gehiagoan grebari eusten ari direlako, Osakidetzako gainerako langile guztiok ez daukagun indarra eta kemena erakutsita".



Naiara Martin izendatu dute Kukulaisi federazioko lehendakari

Naiara Martin Atxutxiamaikako arduraduna izendatu dute Kukulaisi Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari. Barikuan egin zuten urteko batzarra Ermuan federazioko kideek, 2022. urteari dagokion balorazioa egin eta aurtengorako dituzten egitasmoak eta aurrekontua aurkezteko, eta hantxe izendatu zuten Martin lehendakari. June Alegria Bakeriza ordezkatu du elgoibartarrak lehendakari karguan. "Kukulaisik lehendakaritza partekatua alde egiten du, eta elkarte desberdinetako kideek osatutako lehendakaritza talde batek gidatuko du federazioa, baina ni izango naiz lehendakari



ofiziala, legeari dagokionez eta kanpora begira", zehaztu zuen Martinek.

72 umek eman dute izena Mendaroko udalekuetarako

Haur Hezkuntzako hirugarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko 72 umek eman dute izena Mendaroko Udalak antolatu duen udaleku eskaintzarako. Udaletik jakinarazi dute izena eman duten guztiek izango dutela lekua, eta beraz, ez dutela zozketarik egingo. Iaz, 65 umek eman zuten izena.

Hiru aukera zeuden izena eman nahi zutenentzat. Lehenengo txanda, ekainaren 26tik uztailaren 7ra; bigarren txanda, uztailaren 10etik 21era, edo hilabete osokoa, ekainaren 26tik uztailaren 21era. Udalekuak astelehenetik barikura



egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara. Izena eman duten guztiei oharra bidali diete Udaletik, ordainketa egin behar dutela gogorarazten. Zalantzarik izanez gero, kultura@mendaro.eus helbidera idatzi daiteke edo 943 033 282 edo 613 058 757 telefono zenbakietako batera deitu.

Debabarreneko gaztagileek hartu dute parte Mendaroko gazta azokan



Mausitxako ardi gazta, Soraluzeko Egotzako ahuntz gazta, Mallabiko Axeleku gaztandegiko behi gazta, Mutrikuko Goienetxeko ardi gazta, eta Mendaroko Ertate eta Ospas baserrietan ekoizitako sagardoa. Bost euro ordaindu, eta nahi beste sagardo edan eta bost gazta-mokadu probatzeko aukera izan zuten domeka goizez Mendaron plazara batu zirenek. Sagardorik nahi ez zutenek, berriz, bi euroan bost gazta pintxo dastatu ahal izan zituzten. Berotzea kosta zitzaion giroari, baina eguerditik aurrera jende dezente ibili zen azokan, inguruko herrietan ospakizun ugari izan arren.

Boluntario bila hasi dira Mendaron bigarren garagardo azoka solidarioa antolatzeko

Zerua eta garia izenarekin lau eguneko garagardo azoka solidarioa antolatu zuten iazko uztailean Mendaron, Ukrainarekiko elkartasunez, eta aurten ere, egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek. Uztailearen 13, 14, 15 eta 16an egingo dute, eta aurten, biltzen duten dirua bularreko minbiziaren ikerkuntzara bideratuko dute. Lau egun bete-beteak izango direla aurreratu dute, eta dena behar bezala irten dadin, boluntario bila hasita daude. Boluntario lanetan jardun nahi duenak Uztagi tabernan eman dezake izena. Antolatzaileek nabarmendu dute askoren artean egin zela iazkoa posible eta aurten ere Mendarok erantzungo duen konfiantza osoa agertu dute.



'Dual Asmatu Gunea' sortu dute, gazteen talentua baliatuz enpresetan berrikuntza sustatzeko

Dual Asmatu Gunea izeneko programa martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute IMH Campusek eta Rural Kutxak. Programa horren bidez, teknologia digitalen berrikuntza eta inplementazio prozesuak azkartu nahi dituzte industria sektorean, bereziki fabrikazio aurreratuaren esparruan. Horretarako, inguruko industria-enpresetan interesa duten hamar proiektu aukeratu dituzte, eta IMHn Prozesuen eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala ikasten ari direnek parte hartuko dute bertan. Gainera, ikasle horietako bakoitzak sei hilabeteko beka bat jasoko du. Era berean, berrikuntza-proiektu horiek garatzen laguntzeko, IMH Campusek bere instalazioetan eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko aukera emango die egitasmoan parte hartuko duten enpresei.

Hitzarmena sinatzeko saioan, IMH Campuseko zuzendari kudeatzaile Ixaka Egurbidek esan zuen akordioa beste urrats bat dela fabrikazio aurreratu sektoreko enpresa txiki eta ertainei berrikuntza-prozesuetan laguntzera bideratutako IMH Campus estrategiaren barruan, "eta gazteen talentuaren eta prestakuntza dualaren aldeko apustu argia, belaunaldi-erleboaren erronkari heltzeko".

Kiroldegiko langileek 1.000 firma aurkeztu dituzte udaletxean



Kiroldegiko langileek, BPXport enpresak azpikontratatuak, 1.000 sinadura aurkeztu dituzte udaletxean. Enpresarekin duten lan gatazkan irtenbidea bilatzeko eskatu diote Udala gobernari eta patronatuari, baita Udalak jarri duen dirua non gelditu den argitzeko ere.

Lasalde-ederratik Agarrera arteko bidea konponduko dute Mendaron

Lasalde-berri eta Lasalde-ederra etxeetatik Agarre-lasalde baserrirainoko bidea sendotu eta egokituko dute, baina, era berean, badiak eta urpasabideak ere berreraikiko dituzte, eta arekak garbitu. Inbertsioa 57.079,31 €koa da, eta Udaletik jakinarazi dute gutxi gorabehera lau aste beharko dituztela lanak amaitzeko. Interesa duten enpresek *mendaro.eus* webgunearen bidez aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak ekainaren 6ra arte.

Indarkeria matxista egiturazko arazoa dela salatu dute, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere



Jende asko batu zen Orion izandako hilketa matxista salatzeko eguenean Elgoibarren eta Mendaron egin zituzten elkarretaratzeetan. Bikotekide izan zuen hil zuten Lourdes del Hoyo, 50 urteko emakumea eta bi seme-alabaren ama, eta hilketa salatu eta indarkeria matxista egiturazko arazoa dela

salatu zuten elkarretaratzeetara batutakoek. Aurten indarkeria matxistaren ondorioz Euskal Herrian hildako lehen emakumea da Lourdes del Hoyo. Iaz bost andre hil zituzten; 2003tik, berriz, 118 emakume eta 11 ume hil dituzte Euskal Herrian. Elkarretaratzeetako argazki gehiago eta bideoa: barren.eus.

Ekainaren 3an zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Ekainaren 3an zabalduko dute Mintxetako igerilekuen gunea, eta irailaren 10era arte egongo da zabalik. Kirol Patronatutik jakinarazi dute iazko bero denboraldia kontuan hartuta erabaki dutela uda denboraldia aurreratzea. Iazko udan 47.000 erabiltzaile ibili ziren Mintxetako igerilekuetan, 2013tik kopuru altuena.

Ordutegia

- Astelehen-ostiral: 11:00-20:30 (Abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko da)
- Larunbatak, igandeak eta jai egunak: 10:00-20:30 (Abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko da).
- Uztailaren 25ean eta abuztuaren 24an, jai egunak: 10:00etan irekiko da.
- Abuztuaren 25ean, Txiki Eguna: irekita, 11:00etatik aurrera.

Prezioak

- Egun bateko sarrera <18: 4,00 €
- Egun bateko sarrera >18: 6,00 €



Denboraldiko abonua

Elgoibartarrentzat:

- Banakakoa <18: 70,40 €
- Banakakoa >18: 79,00 €
- Jubilatua >60: 70,40 €
- Jubilatu familiarra >60: 116,80 €
- Ikaslea: 73,50 €
- Elgoibartar familiarra: 138,60 €
- Ezinduak: 66,20 €

Kanpotarrentzat:

- Banakakoa: 93,20 €
- Familiarra: 149,90 €

2026an martxan izatea nahi luketen egoitza berriaren lanak esleitu ditu Foru Aldundiak

Elgoibarko El Pilar ikastetxeko partzelan kokatuko den gizarte-zerbitzuen zentroaren eraikuntza eta kudeaketa esleitu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako 87 plazako egoitza, 40 plazako eguneko zentroa, desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-unitatea- 18 eta 22 plaza artean izango dituen- eta buru-nahasmendu larria duten pertsonentzako 16 eta 21 plaza arteko beste unitate bat hartuko ditu eraikin berriak. Zentro osoak 10.500 metro koadro inguruko azalera izango du, eta instalazio "modernoak, irisgarriak eta komunitateari lotuak" izango ditu, inguratzen duten berdeguneekin, egoteko gune zabalekin, jantokiekin eta kafetegiarekin. Bestalde, 70-110 plazako lur azpiko aparkaleku publikoa ere eraikiko dutela zehaztu dute.

Elgoibar 2023 ABEEari (Viuda de Sainz eta Biharko erakundeek osatua) esleitu diote proiektua egitea, eraikitzea eta 10 urtez



kudeatzea. Aurrekontua 88,5 milioi eurokoa da, eta horietatik 20,6 milioi euro eraikuntzara bideratuko dira. Kontratuan ezarritako epeen arabera, obrari 2024. urte hasieran ekitea aurreikusi dute, eta egoitza 2026rako martxan izatea.

Energiaren inguruko proposamenak egin dituzte ikasleek Osoko Bilkura Txikian



Eskola Agenda 21eko ikasturte honetako Osoko Bilkura Txikia egin zuten Elgoibar Ikastolako, Herri Eskolako, Arreiturre BH Institutuko, Mekako eta IMHko ikasleek, joan den eguenean, udaletxean. Ikasturtean ikasleek energiarekin lotuta egindako lanen berri eman zieten Ane Beitia alkateari eta Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziari. Zenbait proposamen ere egin zizkieten: komunitate energetikoak sustatzeko kanpaina abian jartzea; errekan poleak ipintzea elektrizitatea sortzeko; Udalak herriko

saltokiei, herritarrei eta enpresei laguntzak eskaintzea energia berriztagarriak ipintzeko; eta auto elektrikoaren postuetan kargadore gehiago jartzea. Argiztapenaren harira egin zituzten eskari gehien: argiterian eguzki plakak jartzea, kaleko faroletan led argiak ipintzea sentsoreekin, beharrezkoak ez diren argiak kentzea eta argiteriaren mantentze lanak ugaritzea. Kalean bizikletak alokairuan jarri eta propaganda egiteko kartelak sortzea ere proposatu zuten.

8.541 herritarrek eman ahal izango dute botoa Elgoibarren eta 1.442k Mendaron

Botoa ematera deituta gaude maiatzaren 28an. Udal eta Foru hauteskundeak egingo dira egun horretan.

Botatzeko lekuak 9:00etan zabalduko dituzte eta 20:00ak arte egongo da bozkatzeko aukera. Elgoibarren, 17 mahai egongo dira guztira: Kultur Etxean, Jubilatuen Biltokian, Pedro Mugurutzan, San Roken, Urazandin, Altzolan eta IMHn. Mendaron, berriz, udaletxean bi mahai ipiniko dituzte. Guztira, 8.541 herritarrek izango dute bozkatzeko eskubidea Elgoibarren; Mendaron, berriz, 1.442k.

Elgoibarren, Udal Hauteskundeetan alkateaz gain, 16 zinegotzirentzako tokia izango da udaletxean. Mendaron, ordea, aldaketa egongo da aurten. 2022ko urtarrilean, herriko biztanle kopurua 2.000tik beherakoa zela kontuan hartuta Udal ordezkari kopurua ere jaitsi egin dute. Legealdi honetan 11 ordezkari izan dira Udalean eta datorren legealdian bederatziz izango dira.



'Barren.eus' webgunean duzue ikusgai Elgoibarko lau alkategairen arteko mahai-ingurua

Legegintzaldi berrirako dituzten proposamenak Ljende aurrean azaldu eta defendatu zituzten martitzenean Elgoibarko lau alkategaiek: Maialen Gurrutxaga (EAJ), Aitziber Aranberri (EH Bildu), Ariana Nogales (PSE-EE) eta Evaristo Rodriguezek (Ahal Dugu-Podemos). PPko alkategai Aranzazu Contrerasek ez zuen eztabaida publikoan parte hartu. Musika eskolako auditoriumean egin zuten mahai-ingurua eta Garazi Ayesta kazetari elgoibartarrak dinamizatu zuen. Mahai-ingurua grabatu eta webgunean esegi du BARRENEK joan ezin izan zutenek ikusteko aukera izan dezaten: barren.eus.

Lau bloke edo gai nagusi bereiztu zituen kazetariak: gizarte politika eta bizi-kalitatea; trantsizio energetikoa; herri kohesioa; eta hirigintza eta etxebizitza. Lehenengo gai horien inguruan zituzten proposamenak aurkeztu zituzten alkategaiek eta ondoren gai horien inguruko eztabaida hasi zuten. Eta halako eztabaida saioetan izan ohi den legez, minutu bateko tartea izan zuten lau alkategaiek, herritarrei botoa eskatzeko. Bukaeran, galderak egiteko tartea izan zuten herritarrek.



Mugikortasuna sustatzeko egin nahi dituztenak eta gazteentzako dituzten proposamenak aipatu ditu EAJK

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko auzo guztietara iristea ezinbestekoa dela iritzita, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko egin asmo dituzten lanen berri eman du EAJren Elgoibarko alkategai Maialen Gurrutxagak. Besteak beste proposatu du "oinezkoekin eta bizikletekin hiri atseginago baterantz doan hiri-diseinua" lantzea. Bestalde, herriko auzoen kohesioa eta irisgarritasuna hobetzeko proposamenak ere egin ditu: Urazandi auzora joateko King-Kong zubia eraberritzea eta han, igogailu berri bat eraiki eta bide berri bat sortzea; Altzola eta herriaren erdigunea lotuko dituen bidegorri bat sortzea; oinezkoentzako pasealeku berriak sortzea eta daudenak egokitzea; Artekaleko eskaileren ordez

igogailu bat jartzea; eta landa-bideak hobetzea, besteak beste, Sallobenterako bidea egokitzea oinezkoen ibilbidea markatuta.

Gazteei ere zuzendu zaie Maialen Gurrutxaga eta EAJtik eurentzako dituzten proposamenez gain botoa ematera joateak duen garrantzia gogorarazi die. Egin asmo dituztenen artean aipatu ditu: anbulatorioko eraikinean Jaurilaritzarekin lankidetzan, gazteentzako alokairu-etxebizitzaren proiektua bultzatzea; Elgoibarko Gazteen Emantzipaziorako I. Plana martxan jartzea; Elgoibarko gazteentzako tokiko kultur, kirol eta aisialdiko agenda bultzatzea, "modu parte-hartzailean", eta "gazteria aktiboa eta parte-hartzailea sustatzeko" bideak sortzea.

Alderdi sozialistako kideek larrosak banatu zituzten joan zen egunean



Maiatzaren 28ko Udal eta Foru Huteskundeetarako kanpainaren barruan, PSE-EEko hautagaiak larrosak banatzen aritu ziren joan zen egunean Elgoibarko kaleetan eta azokan. Alberto Albistegi Deba-Urolako barrutiko zerrendaburua eta Mari Jose Telleria Mendaroko Udalerako alkategaia eta Kultura, Kirol, Gazteria eta Lankidetzako diputatua ibili ziren, eta larrosak banatzeaz gain, Elgoibarko alkategai Ariana Nogalesen aldeko botoa ere eskatu zuten.

Jai-giroan amaituko du Elgoibarko EH Bilduk hauteskunde kanpaina

18:30ean hasiko dute kalejira, gaur, Kalegoen plazan, talde argazki bat atera ostean, eta kalejiran Giza Eskubideen plazatik, Lekuederretik, Kalebarren plazatik eta San Frantzisko kaletik pasatu ostean Maialen emango diote bukaera, 20:30ak aldera.

EH Bildutik ere gazteei zuzendu zaizkie eta agindu dute gazteen autonomia handitzeko, etxebizitzarako laguntzak indartuko dituztela eta haur eta gazteentzako aurrekontua bikoiztuko dutela. Era berean, orientazio zerbitzuak sortzeko, kirol instalazioen erabilera errazteko eta kultur eragileekin ekintza berriak sortzeko konpromisoa hartu dute. Batetik, esan dute alokairuen prezioa mugatzeko neurriak hartuko dituztela eta etxebizitzaren parke publikoa handituko dutela, kasko historikoko etxebizitza hutsak edo eta Altzolako etxebizitzak egokituz eta eredu berriak sortuz. Era berean, gazteen enplegu motak eta prekarietate maila aztertzeke eta neurriak proposatzeko programak bultzatuko dituztela ere aipatu dute eta kulturaren alorrean, urte osoko aisialdi programa askotarikoa sortuko dutela agindu dute, "gazteekin eta gazteentzat". Bai kulturaren eta bai kirolean ere doako espazioak eta aukerak zabalduko dituztela azpimarratu dute eta Udaletik gune aske autogestionatuak ere bultzatuko dituztela.

JOKIN MUÑOZ

Korrikalaria

✍ Irati Agirreazaldegi

Jokin Muñoz korrikalari mendaroarrak Gasteizko kaleetan jokatu zen Martin Fiz maratoia irabazi zuen maiatzaren 14an. Bi ordu, 24 minutu eta 50 segundoan egin zuen 42 kilometro eta 195 metroko ibilbidea. Maratoi bat irabazten duen estreinako aldia izateaz gainera, maratoian zuen marka pertsonala ondu zuen Muñozek. Hezur edema lesio bat gainditu eta Azkoitia-Azpeitia lasterketa eta Gijongo maratoi erdia proba modura erabili ondoren, fisikoki forma onean zegoela ikusteak psikologikoki asko lagundu zion eta horrela erakutsi zuen Gasteizen podiumeko koskarik altuenera igota. Maratoia irabazi izana lehenengo gurasoekin ospatu zuen, eta orain bizileku duen Soraluzera iritsita, familia eta lagunak zain zituen pankartekin, sorpresa emateko. Eta eskertu zuen.



“Atletismoa niretzat aisialdirako eta bizitzeko modu bat da; baita nire familiarentzat ere”

Martin Fiz maratoia irabazi berri duzu. Zer izan da zuretzat garaipen hau?

Maratoiak egitera bueltatzea. Lesio baten ostean, urte eta sei hilabete pasatu ditut maratoirik egin gabe eta nahi nuen etxetik gertu egiteko maratoi bat prestatzea, estuasunik gabe. Lau hilabete lehenago hasi nintzen prestatzen eta poliki-poliki ikusi nuen kilometroak ondo asimilatzeke gai nintzela. Maratoi hau baino bi aste lehenago Gijonen egin nuen maratoi erdian ikusi nuen oso ondo nengoela, baina maratoi bat egiteak luze jotzen du eta ez da jakiten gorputzak nola eutsiko dion. Nire nahia zen Gasteizko maratoia egitea inongo agobiorik gabe, eta nire burua aurrean ikusi nuenean, irabazteko aukerarekin eta motibazio horrekin aurrera eginda, marka pertsonala lortu nuen.

Ibilbidea zure erritmora eta estuasunik gabe egitea pentsatu zenuen. Nolako izan zen lasterketa?

Lasterketa honetan maratoiaz gain, maratoi

erdia eta hamar kilometroko lasterketa ere egiten dira eta denok batera atera ginen. Nik taldetxoan egin nuen sei korrikalarirekin eta aurretik beste lau-bost genituen, baina ez nekien aurrekoak zein distantzian lehiatzen ziren. Zortzigarren kilometroan hamar kilometroko lasterketa egiten ari zirenak desbideratu egin ziren, eta bakarrik gelditu nintzen. Aurretik zihoazenak bistan nituen, baina nahiko urruti. Antolatzaileak “maratoiko lehena dator” esan zutenean konturatu nintzen ni nintzela. 15. kilometrorra arte bakarrik joan nintzen, baina gero, amaieran bigarren izan zenak, ni harrapatu, pasatu eta erritmo azkarragoan jarraitu zuen. Maratoi erdia ni baino 30 segundu lehenago pasatu zuen berak, baina horren ostean poliki-poliki harrapatzen joan nintzen eta motibatzen hasi nintzen. 32. kilometroan pasatu, pixkanaka atzean laga eta 40. kilometroan konturatu nintzen gauzak oso gaizki joan ezean irabaziko nuela. Hala izan zen.

Maratoiko marka pertsonala egin zenuen. Aurrez non egin zenuen zure denborarik onena?

2021ean, Valentzian. Valentziakoa bezalako lasterketetara marka bila joaten da jendea eta lasterketa hartan 30. kilometrora arte 10 korrikalari joan ginen taldean eta oso ezberdina da taldearen babesean joatea. Niretzat Gasteizkoa berezia izan da, lesioaren ondoren urte zaila izan delako eta ez nekielako zein neurrira arte merezi zuen gorputza behartzea, baina ondo nindoala ikustea eta irabaztea berezia izan da benetan.

Zuretzat zer izan da gogorragoa lesioaren beraren mina ala korrikarik egin ezinak emandakoa?

Femurraren buruan hezur-edema bat izan nuen, baita fisura bat ere, eta hori zaila da sendatzeko eta pazientzia eta denbora ezinbestekoak dira. Zortez Gogortuz fisioterapia zentruko Oier Oregiren eskuetan egon naiz eta dena oso ondo joan da. Mina denak eman dit. Korrika egitea nire aisialdirako tarte bat hartzea da, baina umeen atzetik korrikarik ezin nuela egin edo futbolekin ezin nuela beraiekin jolastu ikuste hutsa hori oso gogorra izan da, batez ere psikologikoki. Poliki-poliki hasi arren, molestiak sumatzen nituen, eta pazientzia ezinbestekoa izan da; baita nire bikotekidearen laguntza ere. Berak badaki korrika egitea niretzat zer den, eta indarra berak eta familiak eman didate.

Duatloian, triatloian eta mendi lasterketetan ibilitakoa zara, baina azkenaldian asfalto gaineko lasterketetan ari zara. Zer dela eta erabaki duzu honetan zentratzea?

Batik bat familiarengatik (Iana, bi ume...). Zailagoa da denbora ateratzea eta nire gogoa ere gehiago da familiarekin egotea. Beti ibili naiz korrika eta asfaltoan oso ondo nabilela ikusita hortan zentratzea pentsatu dut. Dena dela, nire prestakuntzak beti bideratu ditut maratoira. Zazpi maratoi egin ditut jadanik eta inguruko karrerak egitea gustatzen zait, baina maratoiak prestatzeko. Denboralditik kanpora bizikletan ibiltzen naiz eta mendian oinez.

Gaur egun zure bizitzan zein leku du atletismoak?

Kirola beti gustatu izan zait, baina seme-alabak izandakoan asfaltoara pasatzea erabaki nuen eta atletismoa niretzat aisialdirako eta bizitzeko modu bat da; niretzat eta nire familiarentzat. Niri ezezik familiari ere gustatu

egin behar zaizkio edo onartu egin behar ditu entrenatzeko ordutegiak eta hartzen ditudan tarteak. Oso ondo moldatzen gara. Aitzakia moduan erabiltzen ditugu lasterketak egun pasa edo asteburu pasa joateko eta ia karrera guztietara beraiekin joaten naiz. Gasteizera ere goizean goiz nirekin etorri ziren eta hori niretzat oso babes garrantzitsua da. Indarra ematen dit beraiek ni animatzeak.

Entrenamendu sasoiaren ere familia beti dago laguntzeko prest, baina ondo antolatzen saiatzen naiz ahalik eta traba gutxien eragiteko. Ostegunetan 04:30ean jaiki izan naiz lanera joan aurretik 40-50 minutuko korrikaldia egiteko; asteburuetan ere goizeko lehen orduetan entrenatzen dut gero familiarekin egoteko, eta aste barruan azken orduetan.

Probarik ba al duzu epe motzerako aurreikusita?

Denboraldia hilabete inguru luzatuko dut, uztailen jai hartu eta abuztuan Donostiako maratoia prestatzen hasteko asmoa daukat. Gainontzean ez dut egutegia begiratu ere egin, baina seguraski hemen inguruko lasterketaren bat egingo dut gozatzeko eta denboraldia luzatzeko, inolako presiorik gabe. Aurrerago beharbada egingo dut urrunagoko maratoiren bat, baina marka on bat egiteko Bartzelona, Sevilla edo Valentziara joateak ardura handia eskatzen du eta ni ez naiz atletismotik bizi. Baina oraingoz nahiago dut gertuan korrika egitea eta familiaren babesarekin eta bertako giroarekin gozatzea.



Zientzia eta teknologia haur eta gazteen bistan

Elgoibarko ikasleek zientziaren eta teknologiaren arloan lantzen dituzten proiektuen erakusleihu izan zen zapatuan Lekueder parkea. Guztira 38 postu ipini zituzten: Elgoibarko ikastetxeetako ikasleen proiektuak eta Bizilabe ekimeneko haurren steam proiektuak erakusteko postuak, robotika ikastaroko ikasleen lanen postuak, stand profesionalak eta Lanbide Heziketako ikastetxeenak eta unibertsitateenak. Ikasle batzuek azalpenak eman zituzten eta beste batzuek esperimentuak eta makinak probatuz ikasi eta gozatu zuten. Argazkiak: barren.eus





Kontxi Gabilondok lagatako argazkia da gaur erretratu zaharren atal honetara ekarri duguna. Garai batean Misioen Eguna ospatu ohi zen Elgoibarren eta arraza eta kultura ezberdinak irudikatuz askotariko janzkerekin mozorrotu ohi ziren ume eta gaztetxoak. Egun horretako argazkia da, hain zuzen ere, gaur hona ekarri duguna. San Frantzisko iturri ondoan eta kalearen hasieran ikusten dira eguneko protagonistak. Adin askotakoak ilaratan joaten ziren jantzi bereziak jantzita eta argazkian lehen ilaran ageri diren neskatilek 13 urte zituzten orduan. Ezkerretik eskumara: Maritxu Osoro, Ana Garate eta Isabel Gartzia.



EGINGO DUGU.



Maite duzun ehbildu Gipuzkoa

Lehen arreta indartu eta osasungintza publikoa defendatu.

Acabemos con las listas de espera.
Sanidad pública y de calidad.





ON EGIN!

gida gastronomikoa

2023ko Debabarreneko jatetxe eta tabernen gida

Ondo jateko ere, ez daukagu urrutira joan beharrik. Erreparatu bestela hurrengo bi orrialdeoi. Gastronomía eskaintza paregabea daukagu Debabarrenean, tradizioetik eta modernotik, bietatik duena, eta batez ere, eta bereziki, moko finenak ere gustura uzten dituen. Bokatak, mokadutxoak, eguneko menua, karta... egin zure aukera, eta on egin!




AGUIÑASPI Taberna

Urkizu 22, EIBAR

943 128 086

Menu berezia enkarguz, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburgesak, pintxoak...



ALBERT Taberna

Miguel Aginaga 6ac, EIBAR

943 383 177

Eguneko menua, asteburuetako menua eta karta.



BAISI Taberna

Urkizu 11, EIBAR

943 530 816

Espezialitatea: patata-tortilla, entsaladilla, bokatak, hanburgesak... Ardoetan aukera zabala.




BARATZE Gourmet

Bidebarrieta 39, EIBAR

943 845 503

Jatetxe-taberna kontzeptu berria, pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera zabala. Etxera eramaten dugu.



BIRJIÑAPE BERRIA

T. Etxebarria 16, EIBAR

943 821 341

Eguneroko menua, bokatak, ospakizunak. Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua,



BOSSA Gastroteka

Ego Gain 7, EIBAR

943 206 753

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanbursesak.



BURU ZURI taberna

Lersundi kalea, 23, DEBA

943 191 034

Ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak, razioak, pintxo bereziak, Luntxak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 741 230

KM 0 jakiekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, luntxak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak....



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea, ELGOIBAR

943 256 028

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KILI KILI Croissanteria

Ibarkurutze 12, EIBAR

943 202 401

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LABATAI taberna

J.M. Ostolaza kalea, 1, DEBA.

943 509 910

Gosariak:06:00etatik aurrera, pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.



LANDA jatetxea

Garagartz kalea, 32, MENDARO.

943 756 028

Denboraldiko produktuekin egindako karta. Espezialitatea parrillan: haragi, arrainak eta itsaskiak. Ez da afaririk zerbitzatzen.



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 756 166

Eguneko menua 14€ astegunetan. Asteburu eta jaietako menua 17 €. Menu bereziak enkarguz.



SU BEROA Taberna

Bista Eder 11, EIBAR

943 477 779

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, bokatak, karta, razioak...



TIKI TAKA Taberna

San Andres pasealekua 2, EIBAR

943 284 006

Eguneko menua, asteburueta menua, karta, razioak, pintxoak...



TXALTXA Jatetxea

Isasi 7, EIBAR

943 201 126

Karta, kartatik kanpo eta menua astegunetan. Astelehenetan itxita.



TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1, ELGOIBAR.

943 740 490

Eguneko menua astelehenetik ostiralera, larunbatetan menu berezia, karta, kintoak, bataioak, familiako bazkariak...

Elgoibarko dantzari bakarlarien erakustaldia



Urtero moduan, auresku txapelketetan aritu diren Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako ikasleek dantzari bakarlarien emanaldia egin zuten, bariku arratsaldean, jendaurrean. Kalegoen

plazan dantzatu ziren ikasleak eta auresku txapelketetan parte hartzearen ondorioz hartu duten eskarmentua erakutsi zuten jendaurrean. Guztira, 11 eta 19 urte arteko hamalau dantzarik hartu zuten parte.

Hil bukaerako azoka egingo dute bihar Elgoibarren

Hileko azken zapatua da bihar, eta ohi legez, azoka egingo dute Elgoibarren. 09:00etatik 14:00etara baserriko produktuak eta zenbait artisau lan erosteko aukera izango da Kalebarren plazan, eta 11:00etatik aurrera Elgoibarko Atabal Danborrada Elkarteak pintxoak prestatuko ditu Kalebarren plazan Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin. 12:00etatik 14:00etara, bestalde, haurrentzako tailerrak ere izango dira, eta eguerditik atzera, ganadu erakusketa ere bai, Kalebarren plazan.

Finantza-hezkuntzari buruzko tailerra antolatu du Arno Guraso Elkarteak

Finantza-hezkuntzari buruzko tailerra antolatu du Arno Guraso Elkarteak LH3tik LH6ra arteko ikasleentzat. Bi saio izango dira: maiatzaren 31n bata, eta ekainaren 7an, bestea. Sergio del Moral finantza gaietan adituak emango ditu eskolak eta Arnotik nabarmendu dute diruaz hitz egiteaz gain, balioez, lankidetzaz eta elkartasunaz ere arituko direla. Udaletxeko Otarre aretoan emango ditu tailerrak Del Moralek eta bi ordutegi izango dira: LH3-LH4 arteko umeentzat, 17:00etatik 18:00etara, eta LH5-LH6koentzat, 18:00etatik 19:00etara.

'Sex sua' musikala emango dute Mendaron ekainaren 11n

Ligatzeko aplikazioen inguruko gogoeta dakar Andoni Mutiloaren *Sex Sua* musikalak (Elur etxea, 2022). Sexualitateari buruz, umoretik mintzo da Mutiloa, sare sozialetako muturreko kanonetan begirada jarrita. "Ligatzeko gogoz zabilta, baina aplikazioekin ez zara ongi moldatzen? Bertako komunikazio kodeak ulertzeko zailtasunak dituzu? Eta app horiek erabiltzen hasi zarenetik zure antsietate mailak gora egin du? Galdera horien erantzuna baiezkoa bada, ez kezkatu, zuk behar duzuna asmatu dut-eta: ligatzeko aplikazioetan ez galtzeko gida, Atik Zra", dio sinopsiak.


Oholtzan bi pertsonaiari emango die bizia Andoni Mutiloak dantzan, abestuz eta antzetzuz. Alde batetik ligatzeko aplikazioetan aditua den Hiruki dago. Berak ez du genero zehatzik;



nolabait, etiketa guztiak gainditu egiten ditu, eta aditua da. Hirukik adierazi nahiko duena da arriskuz beteriko unibertsoa dela ligatzeko aplikazioena eta berak auto-amodioaren apologia egingo du. Eta bestetik, Imanol dago, Hirukiren teoriak praktikan jarriko dituen, eta nolabaiteko gatazka bat adieraziko duena.

San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 18:00etan hasita. Mutiloak zehaztu du publiko helduari zuzendutako musikala dela, baina ez ligatzeko sare sozialak erabiltzen dituzten horiei bakarrik.

'Mi pequeño gran Samurai' dokumentala emango dute Mendaron



Naizen Adingabe Transexualen Familien elkartearekin lankidetzan *Mi pequeño gran samurai* dokumentalaren emanaldia antolatuta du Mendaroko Udaleko Berdintasun Sailak ekainaren 4rako. San Agustin kulturgunean izango da proiektzioa, 18:00etan hasita. Ez da emanaldi hutsa izango, baina. Izan ere, dokumentaleko protagonista nagusia den Ekai Lersundi gaztearen (Ondarroa, 2001-2018) gurasoak ere gonbidatu dituzte saiora, bai eta Naizen elkarteko beste familia bat ere. 2019an bere buruaz beste egin zuen Ekai Lersundi trans gazte ondarrutarraren istorioa kontatzen du dokumentalak.

Rüdiger taldeak kontzertua emango du gaur, barikua, Kultur Etxeko Sotoan



Sinuösek antolatuta, Rüdiger taldearen kontzertua izango dugu Elgoibarren gaur, Kultur Etxeko Sotoan. Willis Drummond taldeko Felix Buff bateria jotzailearen proiektua da Rüdiger. Egitasmo honetan, ordea, baketak albo batera laga eta gitarra joz eta abestuz dator. *Before it's vanished* laneko kantuak aurkeztuko ditu Buff-ek Sotoan, Sinuösetik jakinarazi dutenez. Brit-pop, folk, psikodelia eta indie doinuak jasotzen dituen estreinako diskoa du honako hau.

Kontzertua 23:00etan hasiko da, eta sarrerak bost euroan jarriko dituzte salgai. Kontzertua antolatzeko, Elgoibarko Udalaren, Salento pizzeriaren, Lanbroa kafetegiarene eta Tantaka eta Uztargi tabernen laguntza izan du Sinuösek.

'Bizitzaren maskaradak' antzezlanaren emango du gaur, barikua, Taupadak



Bederatzi mikroantzerki bildu ditu Taupada antzerki taldeak *Bizitzaren maskaradak* azkeneko lan honetan. Edurne Lasak zuzendu du antzezlanaren eta Jose Mari Larrañagak egin ditu teknikari lanak. Aktore lanetan, berriz, honako talde hau arituko da gaur Herriko Antzokian: Dani Zelaia, David Rodriguez, Edu Ayesta, Gorka Luna, Ibai Leon, Maixus Otaegi, Nagore Cid, Oihane Gartzia, Ruben Markina eta Sara Iriondo. Taupadatik jakinarazi dute helduentzako antzezlanaren dela eta 80 bat minutuko iraupena daukala. Emanaldia 20:30ean hasiko dute, eta sarrerak salgai daude Herriko Antzokiaren webgunean: herrikoantzokia.eus

'Herri bat, mila oroitzapen' argazki-erakusketa, Mendaron

Anjel Bazterretxea Mendaroko abade izandakoaren argazki-bildumako argazki batzuekin erakusketa antolatu dute Mendaron. *Herri bat, mila oroitzapen* jarri diote izenburuztat erakusketari, eta gaur zortzi, ekainaren 2an zabalduko dute, jubilatuen ondoko lokalean, 18:00etan. Gutxienez ekainaren 8ra arte egongo da zabalik erakusketa, eta beharra ikusiko balitz, ekainaren 11ra arte luzatuko lukete. Goizez, 10:00etatik 13:00etarako ordutegia izango du, eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara. Zapatudomeketan, berriz, goizez bisitatu ahal izango da bakarrik.

Elgoibarko musika eskolako ikasturte amaierako jaialdia gaur zortzi, Maalan

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleak hainbat kontzertu eta emanaldi egiten ari dira ikasturte amaizteko. Datorren ostiralean, ekainaren 2an, 19:00etan hasita, Maalan egingo dute ordubete inguruko kontzertua. Lehenengo, abesbatzak 5 edo 6 kantu abestuko ditu eta ondoren beste horrenbeste pieza joko ditu Beti Sua txarangak. Kontzertua hainbat rock taldek amaituko dute, pieza pare bana joz.

Ekainean ez da musika eskolako ikasleen emanaldirik faltako. 4an haurren danborrada izango da Kalegoenen, 8an kontzertua Herriko Antzokian, 9an dantza jaialdia Kalegoenen eta 12an, Musika Eskolako auditoriumean izango da beste kontzertu bat.

Aste Nagusiko ospakizunak bihar bukatuko dituzte Elgoibarko Udal Ludotekakoek, bazkariarekin



Elgoibarko jaietarako denbora asko falta den arren, jai giroak hartu du Udal Ludoteka asteon. Izan ere, Aste Nagusiaren 13. edizioa ospatzen ari dira egunotan. Jaietarako kamisetak sortzeko saioarekin hasi zituzten festa egunak hilaren 23an, eta bihar, zapatua, amaituko dira. Aste barruan askotariko ekintzak egin dituzte: diskoteka, merienda, festa txokoak eta futbol txapelketa. Umeek, hortaz, jai giroaz gozatzeko aukera izan dute, eta oraindik badute beste jarduerak ere. Aste nagusia bihar, zapatuan, borobilduko dute Kalegoen plazan egingo duten bazkariarekin eta bazkalostean, herri kirolak izango dituzte.

Irailean jokatuko duten Mont Blancoko Ultra Trailerako dortsala irabazi du Maite Maiorak



Podioma egiteko helburua jarri zion bere buruari probarako izena eman zuenean, eta horixe buruan zuela abiatu zen bariku iluntzean korrika Maite Maiora Alsace Grand Est lasterketan, Alsazian (Frantzia). Izan ere, bazekien irailean Chamonixen jokatzekoa den Mont Blancoko Utra Trailerako dortsala eskuratzeko horixe zuela bide zuzena: UTMB zirkuitoko ehun miliako proba batean lehenengo hiruren artean sailkatzea. Eta aise gaingitu zuen erronka, bera gailendu baitzen zapatuan.

Hogei ordu, hogeit hamar minutu eta 35 segundoko denbora behar izan zuen Maiorak 175 kilometroko ibilbidea osatzeko eta hiru orduko tartea atera zion bigarren sailkatuari, Marie Helene Postari (23:20:52). Domekan, lasterketaren biharamunean, "oso-oso pozik" zegoela aitortu zuen, bere lasterketa egin ahal izan zuelako. Aitortu zuen hasieratik sentitu zela ondo, eta beharbada behar baino azkarrago abiatu zela baina sasoiko sentitzen zela eta erabaki zuela ez ibiltzea beste askotan bezala indarrak gerorako gordetzen. "Batuetan gorde eta gorde aritzen naiz, eta bukaeran, beti bezain lehertuta amaitzen dut. Horregatik erabaki nuen ahal nuen bitartean gozatzea eta sentazioei jaramon egitea. Mari

Helene, atzetik zetorkidana, urruti ikusten nuen eta poliki-poliki tartea handitzen nindoala ikusita, gustura egin nuen korrika", azaldu zuen. Ibilbideaz gozatzeko aukera ere izan zuen Maiorak lasterketa ari zela. Turckheim, Kaysersberg eta Ribeauville Alsaziako herri tipikoetatik igaro ziren korrikalariak, baita Hohlandsbourg, Schlossberg, Haut-Koenisbourg edo Ortenbourg gaztelu ospetsuetatik ere: "Izugarri polita iruditu zait ibilbidea, ohiko mendi lasterketa baten oso bestelakoa. Ibilbidean zehar hainbat gaztelu eta dorretxetatik pasatu gara. Barrura sartu, gazteluan goraino igo, jaitsi, eta kanpora berriro. Ibilbidean zehar pasatu ditugun herriak ere oso dotoreak iruditu zaizkit, Erdi Aroko ukitu horrekin. Gauzez argi guztiak itzalita zeuden kalean, eta ez dakit beti hala egoten diren edo lasterketarako itzali zituzten, baina benetan magikoa izan da dena". Eguraldia ere alde izan zuela nabarmendu du mendarorarrak. "Gau ona egin zigun eta eguna ere bai, eta alde horretatik ez dago aitzakiarik".

Maioraren atzetik, Marie Helene Posta eta Jenny Josefsson helmugaratu ziren eta hirurek osatu zuten emakumezkoen podioma. Gizonezkoen podiumera, berriz, Fabrice Fauser, Markus Meink eta Jeremy Goguet igo ziren.

Eneko Ortega, Euskadiko txapeldun

Amurrioko Sari Nagusia jokatu zuten domekan, junior mailako Euskadiko Txapelketa jokoa zegoela. 22 kilometroko zirkuito bati bost itzuli eman zizkieten txirrindulariek, guztira 111 kilometroko ibilbidea osatzeko. Itzuli bakoitzean bi mendate igo zituzten: Zaroabe eta Lezamakoa, eta 155 txirrindularik parte hartu zuten. Eta Elgoibarko Lagun Taldeko Eneko Ortega (Besa-Laboral Kutxa) izan zen denetan azkarrena. Esprinean erabaki zen lasterketa. 2:55:16ko denbora egin zuen Ortegak, eta denbora bera markatu zuten sailkapeneko hurrengo laurak: Gari Ugarte Larreak (Bellota-Goierri), Jon Conejero Laconchak (Grupo Eleyco-Iturribero), Aimar Alarcia Quintanok (Iruki Donostialdea) eta Ander Irazabal Pikatzak (Egurrola-Urdabai). Ortegak hasieratik lasterketa oso gogorra izan zela adierazi zuen probaren bukaeran. "Eraso eta



ihesaldi saiakera asko egon diren arren, tropelak kontrolpean eduki du lasterketa eta azkenigoeran erabaki da irabazteko aukerak izango zituztenen taldetxea".




Elgoibarrera bueltatuko da Debabarreneko raida

Elgoibarren jokatuko dute Debabarrenako Orientazio Raidaren zazpigarren ekitaldia, azken bi urteetan Deban egin ostean. Ekainaren 17an egingo dute, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Morkaikoren Raid Taldeak antolatzen duen kirol proban bi modalitatetan parte hartzeko aukera izango da, Abentura eta Familia raidetan. Abentura raidean, bikotea osatu beharko da eta zazpi orduko muga izango dute parte hartzaileek proba bukatzeko. Familia Raida, aldiz, bi eta bost pertsona arteko taldeetan jokatu dute (horietatik bat, gutxienez, adin nagusikoa). Raida orientazio proba da, eta helburua mapa batean markatutako puntu gehienetatik pasatzea da, probak irauten duen bitartean. Dena dela, bakoitzaren ahalmenaren arabera proba moldatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago eta izen-emateak, ondorengo web orrian: <https://debabarrenaraid.wordpress.com/>

Mendi bizikletan ibiltzeko teknikei buruzko ikastaroa eta irteera, ekainaren 10erako

Mendi bizikletan ibiltzera ohitua dagoen edonorentzako moduko BTT ikastaroa antolatu du Morkaikok ekainaren 10erako. Ikastaroa Oiartzunen egingo dute, eta Eneko Adok emango du. Elgoibartik autoetan joango dira Oiartzunera (8:15ean elkartuko dira Guass-eko aparkalekuan), eta goiz partean egingo dute ikastaroa, 10:00etatik 14:00etara. Bazkalostean, berriz, BTT ibilbide bat egingo dute, goizean ikasitakoa praktikan jartzeko, Oiartzun inguruko basoetan. Online eman beharko da izena morkaiko.eus webgunean.



Gipuzkoako Kopa irabazi du Cimdek

Denboraldi amaiera honetan Sanloko hainbat taldek dituzte Gipuzkoako Kopa irabazteko aukerak. Talde batek eskuratu du dagoeneko kopa, jubenil emakumezkoen Cimde Elgoibar taldeak, hain zuzen ere. Elgoibartarrek Hiruko Finala jokatu zuten joan zen asteburuan, Donostian. Sanloko taldeak Oñatiko Oñabike Aloña Mendi eta Andoaingo Leizaran Eskubaloia taldeak izan zituen aurkari, eta bi partidak irabazi zituen: 8-16 Leizaranen aurka eta 15-10 Oñabiken aurka. Hala, titulua eskuratu zuen CIMDEK, eta Kopako txapeldunak dira.

Sanloko beste talde batzuek ere badute aukera Kopa Txapelketa irabazteko. Infantil mailako nesken Tecnifuelle Bus taldeak Gipuzkoako Kopako finala jokatu du asteburuan, Orion.

Nesken kadete mailan diharduen Salento Gelati taldeak ere baditu kopa irabazteko aukerak, asteburuan Eibar Eskubaloia taldeari irabaziz gero. Izan ere, Arrate multzoko lehen postuan daude elgoibartarrak, lau punturekin, Aialarekin



berdinduta. Azken jardunaldian elkarren aurka jokatuko dute bi taldeek, Olaizaga kiroldegian. Zapatuan izango da neurketa, 11:30ean.

Azkenik, senior emakumezkoen Gaurve Asesores taldeak Gipuzkoako Koparako sailkatzeko partida jokatu du, domekan, Olaizaga kiroldegian. Gaurvekoek Donostiako Bera Bera taldearen aurka jokatu dute, 11:30ean.

Paula Calvok bost proba irabazi ditu Frantziako Tarbeseko Sarian

Paula Calvo igerilari elgoibartarrak Gipuzkoako Igeriketa Federazioa ordezkatu zuen maiatzaren hasieran Frantziako Tarbes hirian jokatu zuten igeriketa txapelketa batean, eta emaitza oso onak lortu zituen. Bizkar estiloko 100 eta 200 metroko lasterketak eta libre erako 100 eta 400eko probak irabazi zituen Eibar Igerixan taldeko kideak. Horrez gain, laugarren postuan sailkatu zen 200 estiloetan, eta erreleboetan lehenengoa eta bigarrena izan zen Gipuzkoarekin 4x100 libre eta 4x100 estilo probetan, hurrenez hurren.



Gurpildun aulkira egokitutako errugbi partida jokatuko dute Olaizagan, ekainaren 3an

Gurpildun aulkira egokitutako errugbia ezagutzera emateko ekitaldia antolatu dute ekainaren 3rako Elgoibarren. Lagunarteko partida jokatuko dute Gasteizko Basatiak Zuzenak eta Adapta taldeek, Olaizaga kiroldegian, 11:30ean. Zuzenak taldeko kidea da Markel Kerexeta elgoibartarra, eta bera ageri da partida iragartzeko sortu duten kartelean ere (irudian). Xaketik ezagutuko dute askok Markel Kerexeta Elgoibarren, izan ere, xakeari lotutako albiste askotako protagonista izan baita ume-umetatik. BARREni eman zion elkarriketa batean adierazi zuenez, betidanik gustatu izan zaio kirola, taldean jokatzeko kirola bereziki, eta hainbat kirol probatu ostean, duela bost urte iritsi zen Gasteizko Zuzenak klubera. Gainera, taldeko kapitaina da. Kirol hau ezagutzera eman, eta inor animatzen bada, taldeetara batzeko antolatu dute erakustaldia bi taldeek eta Elgoibarko Udalak eta Kirol Patronatuak elkarlanean. Ez dute sarrerarik kobratuko.



Uxue Etxeberriak zilarrezko bi domina eskuratu ditu Gipuzkoako gimnastika erritmiko txapelketan



Balleta, gimnasia eta dantza uztartzen dituen gimnastika erritmikoko txapelketak hartu zituen Azpeitiko kiroldegia, joan den asteburuan. Zapatuan, Gipuzkoako Amateur Txapelketa, eta domekan, Banakako Euskadiko Txapelketa. Ipuruako gimnastika erritmiko taldeak ordezkaritza zabala eduki zuen amateurren Gipuzkoako txapelketan, eta horietako bat izan zen Uxue Etxeberria Zabalo elgoibartarra. Ipuruako taldeak makina bat

domina lortu zituen taldeka zein banakako modalitatean, eta Etxeberriak ere zilarrezko bi domina leporatu zituen. Senior B mailako bakarkako saioan txapelkunorde izan zen, pilotarekin egin zuen saioagatik. Bikotekako lehia ere, bigarren postua eskuratu zuen Nidia Olasolorekin bikotea osatuta. Pilotarekin aritu zen Etxeberria eta zintarekin Olasolo. Euskadiko txapelketan lehiatuko dira orain, maiatzaren 28an, domekan, Leioan.

C.D. Elgoibarrek penaltietan galdu du Gorengo Mailako finala



Emakumezkoen Gorengo Mailako Igoera Faseko finala jokatu zuten, zapatuan, C.D. Elgoibarrek eta C.D. Hernanik, Orion, Mendibeltz futbol zelaian. Bi taldeek lortu dute mailaz igotzea eta Ohorezko Mailan jokatu dute datorren denboraldian, baina denboraldiko talderik onena zein izan den erabakitzeko finala jokatu zuten. C.D. Elgoibarrek finala ikustera joateko autobusa antolatu zuen eta zaleen animoek

eta babesak hauspotuta jokatu zuten partida elgoibartarrek. Berdegunean partida parekatu jokatu zuten bi taldeek eta banako berdinketarekin amaitu ziren arauzko 90 minutuak. Aroa Cernadak sartu zuen talde zuri-gorriaren gola. Luzapenik jokatu gabe, penalti jaurtiketetan erabaki zen finaleko irabazlea. Hernaniarrak hobeto moldatu ziren penaltietan (3-2) eta beraiek dira aurtengo Gorengo Mailako txapelak.

Markel Kapanagak eta Iker Barrenetxea-Arandok Probintziarteko Txapelketa irabazi dute Realarekin

Gasteizen jokatu zuten asteburuan Probintziarteko Txapelketa prestigiotsua, eta infantiletan Realak gailendu zen. Markel Kapanaga elgoibartarrak eta Iker Barrenetxea-Arando mendaroarrak talde txuri-urdinarekin jokatu zuten txapelketa hori. Ohorezko Mailan jokatzen duen C.D. Elgoibarreko infantil mailako taldeko jokalaria da Kapanaga, eta denboraldi honetan hiru aldiz jaso du Realaren deia, Donostiako taldeak antolatzen dituen teknifikazio eta entrenamendu saioetan parte hartzeko. Beste horrenbeste esan daiteke Barrenetxea-Arandotaz, Debako Amaiak Bat taldeko atezainaz. Asteburuan, txapelketa batean lehiatzeko aukera izan zuten Realarekin. Ez edonolako txapelketa gainera, sona handia baitu Gasteizko Aurrera futbol taldeak antolatzen duen Probintziarteko Txapelketak. 31. edizioa izan den honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Errioxa eta Burgosko alebin eta infantil mailako hogeitau talde lehiatu ziren. Infantiletan Realak lortu zuen garaipena, Gasteizko Betoño eta Bilboko Santutxu taldeen aurretik.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Behar diren tituluak eta agiriak egunean dauzkat.
631 094 403

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Orduka, gauzez, etxeko langile moduan edo asteburuetan jarduteko prestutasuna.
632 065 398

Lanerako prest. Adinekoak zaintzen esperientzia handia.
663 937 822

Lanerako prest. Esperientzia handia zaintza lanetan, garbiketa lanetan eta jostun moduan.
631 319 476

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Esperientzia daukat.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Esperientziaduna.
640 881 328

Adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest nago, orduka.
692 454 912

Edozein lan egiteko prest nago.
641 988 643

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, etxeko langile moduan eta gauetan ere bai.
631 125 127

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten jardungo nintzateke. Berehala lanean hasteko prest, edozein ordutegitan.
632 881 068 (Jessy)

Eskaintza

Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabilta. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta efizientea izatea. Denboraldi luzerako lanpostua. Bidali CVa *comercial@ajubita.com* helbidera edo deitu **943 740 929** zerbakira.


KINTO OSPAKIZUNAK

1957an jaiotako kinto ospakizuna, uztaillaren 15ean. Bazkaria, Sigma jatetxean. Interesatuak 52 euro sartu uztaillaren 11 baino lehen, ES86 2095 5036 5091 2250 1193 kontu korrante zenbakian, zuen izen-abizenak zehaztuz. 13:00etan Kalegoen Plazan elkartuko gara.

1968an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean. Bazkaria, Sigma jatetxean. Interesatuak 68 euro sartu behar dituzte ekainaren 4rako, izena eta abizena zehaztuz: ES7420803619283040069860. 12:30ean batuko dira Viento Sur tabernan argazkia ateratzeko.

1973an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean, Belaustegin. 12:00etan luntxa, Zubi Ondo elkarteetan. Autobusa 14:30ean, Txankakuan. 90 € sartu behar dira Laboral Kutxan, maiatzaren 31rako: ES69 3035 0007 27 0071143415

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioalari Larriko Ikastetxea</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko bizilagun batek zuntz optikoa jartzea eskatu du, baina komunitateak ezetz erantzun dio, kableak fatxadatik pasatu behar direlako. Jakin nahi nuke komunitateak badaukan ezetz erantzuteko eskubidea edo, aldiz, bizilagun horrek egin dezakeen instalazio hori.</p> <p>Legareen arabera, eraikinetako telekomunikazio zerbitzuen instalazioa edo aurretik daudenak berritzea eskatu dezake edozein etxejabeak, eta erabakia hartu beharko du komunitateko kideen kuoten herenak, betiere partaidetza kuoten herena ordezkatzeko badute. Komunitateak ezingo die instalazio berrien edo azpiegitura komuneko egokitzeko lanen gaineko kostuak eta ondoren etorriko diren mantentze kostuak eskatu hori egitearen aldeko botoa eman ez duten bizilagunei. Hori bai, gerora eskatuko balute telekomunikazio edo energia zerbitzu horietarako sarbidea, eta horrek eskatuko balu instalazio berriak edo egindako egokitzapenak erabiltzea, dagokien kostua ordaindu beharko lukete; kostu eguneratua eta interes legalak ezarrita.</p> <p>ONDORIOA: Instalazioa elementu komunetan egin behar da. Hau da, fatxadan, baina errespetatu egin behar da eraikinaren estetika eta aurretik dagoen kableatua eta jarriko den kableatu berria ondo antolatu behar dira.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Lander!**
Maiatzaren 31n 9 urte beteko dituzu. Patxo pila bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Iñigo,**
larunbatean 8 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasatu! Etxekoan partez.



Zorionak, **Malen,**
igandean 5 urtetxo beteko dituzulako. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familiakoan partez, bereziki ahizpa Naroaren partez.



Zorionak, **Jone!**
Asteartean 7 urte bete zenituelako. Muxu bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Iraia,**
astelehenean 5 urte bete zenituelako. Zelako ondo pasatu genuen! Gurasoen eta bereziki Jareren partez.



Zorionak, bikote, amaren, ahizparen eta zerutik begira dagoen aitaren partez. Bikain pasatuko dugu.



180 cm-ko luzeerako koltxoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**



1. PIKE-EHUN EKOLOGIKOA
2. AIRFILL EHUNA
3. POLITEX - 4. BROTEX
5. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
6. AIREZTAPEN-BALBULAK
7. BONNELL TEKNOLOGIAKO OHE-MALGUKIAK
8. INGURU-KARENAJEA



Luzera: 90 | 105 | 135 | 150
645€ | 705€ | 875€ | 925€



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



UDAL ETA BATZAR NAGUSIETAKO HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeen jarraipen berezia domeka gauean **barren.eus** webgunean

Astelehenean

Elgoibar eta Mendaroko udal hauteskundeetako emaitzen inguruko ale berezia kaleratuko dugu.

BARRENen eta herriko komertzioetan eskuratu ahal izango duzu.



2019an emaitza genuen hauteskundeetako ale berezirik, Elgoibar eta Mendaroko emaitzetan

26 BARIKUA

17:00 'Jolasa kalera barixakuetan'. Lekueder parkean.

18:30 Erakusketa: 'Nor eta non. Begirada bat Railowsky bildumari. Ongarrik antolatuta, Kultur Etxean. Gaur izango da erakusketa ikusteko azken eguna.

20:30 Antzerkia: 'Bizitzaren maskaradak'. Taupadak antzeztuko du, Herriko Antzokian.

27 ZAPATUA

Hileko azken zapatuko feria

09:00-14:00 Baserriko produktuen eta artisau lanen salmenta. Kalebarren plazan. 11:00 Atabal Danborradaren Elkartek txosna zabalduko du.

12:00-14:00 Umeentzako tailerrak. Kalebarren plazan.

Egurditik aurrera: Ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

29 ASTELEHENA

16:00 Zaintzari eta etxez etxeko laguntzari buruzko aholkularitza zerbitzua, Lilan, Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak. Hitzordua hartzeko: 688 640 983 / elgoibarzaintza@gmail.com

18:00 Hausnarketa saioa: 'Emakumeak eta psikofarmakoak'. Lilan. Loredi Salegik gidatuko du saioa eta ele bietan izango da. Ez da izenik eman behar.

30 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Steinbeck-en *Las uvas de la ira* liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Gotzon Garate Udal liburutegian.

31 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra: Spielgelmanen *Maus: bizirik irtendako baten kontakizuna* landuko dute, Maite Lopez Las Herasekin.

2 BARIKUA

17:00 'Jolasa kalean barixakuetan'. Lekuederren.

18:00 'Herri bat, mila oroitzapen' argazki erakusketa Mendaron, jubilatuen ondoko lokalean.

18:30 Egur arte tailerreko ikasleen lanen erakusketa. Kultur Etxean jarriko dute ikusgai, hilaren 24ra arte.

18:30 Kafe tertulia: 7. artea. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Lilan. Doan. Ondoren, mokadutxoa.

19:00 Ikasturte amaierako kontzertua. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Maalako parkean.



EHINGO DUGU.

ehildu

Enetz Ezenarro Arriola

Maite duzun Mendaro



ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Ekainak 6, martitzena
19:00etan,
Aita Agirreko areto nagusian

 943 741 626  643 499 169

Zinea



'Los buenos modales'

27 zapatua: 19:00 / 22:15
 28 domeka: 19:00
 29 astelehena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

MAIATZA

- 26 BARIKUA
- 27 ZAPATUA
- 28 DOMEKA
- 29 ASTELEHENA
- 30 MARTITZENA
- 31 EGUAZTENA

Egunez

- Barrenetxea
- Ibañez / ■ Yudego
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez

EKAINA

- 1 EGUENA
- 2 BARIKUA

- Yudego
- Oruesagasti

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
 Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384



Ignacio Kortabitarte Zaldunbide

2023ko maiatzaren 23an hil zen, 85 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



IX. URTEURRENA
Manuel Loiola Iriundo

2014ko apirilaren 9an hil zen,
 82 urte zituela.

Haien oroimenez
 urteurrenko meza izango da,
 domekan, maiatzaren 28an, 12:30ean,
 Mendaroko Garagartzako elizan.
 Joango zareteneoi, alde zurretik eskerrak.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.
 Etxekoak



I. URTEURRENA
Flora Oñederra Uria

2022ko maiatzaren 23an hil zen,
 91 urte zituela.



Mara
Canseco
Mendoza
6 urte, Elgoibar



"Katu dotorea"



Ekhi
Leon
Larrea
5 urte, Elgoibar



"Meltxor, Gaspar eta Baltasar"




Lorea Sasiain Garate

2023ko maiatzaren 18an hil zen, 64 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Laster arte ezpainetan,
utzi gaituzu penatan.
Orain gure ametsetan,
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan.***

Etxeoak



Mari Carmen Azpiazu Altuna

2023ko maiatzaren 18an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.


Etxeoak



Euren oroimenez I. urteurreneko meza
izango da, domekan, maiatzaren 28an,
11:00etan, Elgoibarko
Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Beti gure bihotzean izango zaituztegu.
Bakea zuekin izan dezazuela.***

Maitasunez,
etxeoak



I. URTEURRENA
***Angel Albizu
Astigarraga***

2022ko maiatzaren 24an hil zen,
82 urte zituela.



I. URTEURRENA
***Arrate Elizburu
Arriola***

2022ko maiatzaren 29an hil zen,
76 urte zituela.

GREEN MI O EN GIDA



LEIHOAK

 **LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

 **PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Fax: 943 743 565
 tienda@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

 **BIENA S.L.**
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus



PINTURA

 **BIOK dekorazioa**

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

 **SANTANA**

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

 **iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak
 Kurutz-gain industrialdea, 9
 20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
 www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

 **egoluz**
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: **630 957 345**
677 512 462
 Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA



Cuidando lo Salud Ambiental
618 198 760
 ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

 **IMAR AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea. 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR

23,10€ hilan
12 aldiz urtean
4.885 ale astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.